

ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA

HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA

956/2014 EBAZPENA, abuztuaren 6koa, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendari Gerentearena, Arabako Unibertsitate Ospitalean Psikiatriako zerbitzuko Ikuskatzaile lanpostua izendapen askez bidez betetzeko deialdia egiten duena.

RESOLUCIÓN 956/2014, de 6 de agosto del Director/a Gerente del Hospital Universitario Araba, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Supervisor/a del servicio de Psiquiatría en el Hospital Universitario Araba de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Psikiatriako Zerbitzuko Ikuskatzaile lanpostua hutsik dago. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

Encontrándose vacante el puesto de Supervisor/a del servicio de Psiquiatría en Hospital Universitario Araba, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

OINARRIAK:

BASES:

1.- Parte hartzeko baldintzak.

1.- Requisitos de participación.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea B1 talde profesionalean.

a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional B1.

b) B1(Diplomatu sanitarioak) lanbide-taldearen titulazioa edukitzea.

b).- Hallarse en posesión de la titulación del grupo profesional B1 (Diplomados sanitarios).

c) Hiru urteko Lan-esperientzia B1 taldean, gutxienez, edukitzea.

c).- Experiencia profesional mínima de 3 años en el grupo profesional B1.

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

d).- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.

2.- Kontuan hartuko diren meritua:

2.- Méritos a considerar:

- Erizaintzako Unitateetan prestakuntza edo lan-esperientzia
- Antolatzeko eta taldeak kudatzeko esperientzia izatea
- Informatika ezagutzak: Excel eta Word erabiltzaile mailan.
- Lanpostu honetan aritzeko interesgarriak eta baliotsuak diren beste merezimendu batzuk aurkeztu

- Experiencia y/o Formación en Gestión de Unidades de Enfermería.
- Experiencia en organización y gestión de equipos.
- Conocimientos de informática a nivel de usuario en Excel, Word.
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño del puesto.

ahal izango dira.

3.- Euskararen ezagutza (gehienez 6 puntu)

Euskararen erabilera Osakidetza normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Jose Atxotegi kalea z/g. 01009 Vitoria-Gasteiz edo Olagibel, 27 kalea, 01004 Vitoria-Gasteiz), aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira agiriak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiak bete eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera Arabako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Jose Atxotegi kalea z/g. 01009 Vitoria-Gasteiz edo Olagibel, 27 kalea, 01004 Vitoria-Gasteiz) bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kontuan hartzeko meritu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

3.- Conocimientos de euskera.

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

4.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal del Hospital Universitario Araba (c/ José Achótegui, s/n, 01009 Vitoria-Gasteiz o a C/ Olagibel 27, 01004 Vitoria-Gasteiz), de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Para ello dispondrán de un plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal del Hospital Universitario Araba (c/ José Achótegui, s/n, 01009 Vitoria-Gasteiz o a C/ Olagibel 27, 01004 Vitoria-Gasteiz) La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos
- d) Fotocopia compulsada de todos los méritos a considerar.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

5.- Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak baloratzeko. Epaimahaiburua Zuzendari Gerentea izango da edo eskuordetza ematen dion pertsona, eta batzordekideak Erizaintzako Zuzendaria eta Pertsonaleko Zuzendaria (idazkari ere arituko da) izango dira.

6.- Hautaketa-prozedura

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAan argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intransparen eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpenaren aurkako errekursoak

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekursoak aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza- Euskal osasun zerbitzuko zuzendaritza nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión para la valoración de las solicitudes presentadas, presidida por el Director Gerente o persona en quien delegue, e integrada por la Directora de Enfermería y el Director de Personal (que también actuará como secretario).

6.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierto) se llevará a cabo mediante Resolución del/la Directora/a Gerente Hospital Universitario Araba, de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

8.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

Vitoria-Gasteizen 2014ko abuztuaren 6an

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de agosto de 2014



Iz./Fdo.: ZUZENDARI GERENTE/DIRECTOR GERENTE
JESUS MUÑOZ FERNANDEZ